

rentzat leku uzten duen sozialismoaren alde burukatzen da Sobietar Batasunean bertan. Berak bezala aldizkariak ere gauza bera nahi du: sozialismoaren eta demokrazia-
ren ezkontze. (Joanes Lekerika).

Mosku Mitterranden aurka

Mitterrandek, Frantziako ezkerren buruak, Moskun eta Brezneven alboan ikusten zuen bere burua. Eta horra, Moskuko agintariak atzeratu egin dute, Sobietar Batasunera Frantziako Alderdi Sozialistaren joatea. Ez esan, atzerakuntza hori apropos eta intentzio handiren batekin egina izan ez denik.

Jokabide diplomatiko guztien aurka, airekoa hartzeko bost egun falta zirelarik, eta laugarren aldiz, oraingoz ez joateko esan diote sobietarrek Mitterrandi. Esannahi handiko gertaera, zalantzarik gabe; Moskuk, diplomaziarren folklorea horren* maitekiro zaintzen duen Moskuk, ez baitu holakorik debalde egiten. Laugarren aldiz gertatu da, gainera, hori. Lehenbizikoan, Mitterrandek berak atzeratu zuen, orduko Frantziako sobietar enbasadorearekin SESBeko* juduei eta Txekoslovakiari buruz izan zuen eztabaida tarteko zela. 1972.ean zen hori. Geroztik, bitan —lehenik Pompidouren heriotzagatik eta gero Brezneven eritasunagatik*— atzeratu dute bidaia* hori.

Ia ia segur nago, irakurleak lerro hauk* irakurtzen ditueneko,* berriro ere joateko egun bat jarria izango dela. Dena den, bostgarrena izanen da. Eta orduan Mitterranden bisitak ez du zentzu bera izango. Mosku biziki harriturik gelditu da, berri honek Frantzian izan duen oihartzunaz.* Ez dela hor inolako intentziorik ikusi behar, eta hori guztiori ulertzapen oker bat izan dela esan du ofizialki Moskuk. Arrazoina oso sinplea omen da, hots,* bost urtetako plangintza prestatzen eta nazismoaren kontrako gerla ospatzeko bestakizunak* antolatzen lanpetuegiak daudela memento hontan sobietar zuzendariak. Aitzakia horrek enganiatuko duen tontorik oraindik ez da jaiio. Zer, bada? Orain konturatzen direa* sobietarrak okupaturik daudela, orain, Mitterrand Moskura joateko bost egun falta direlarik? Aitzakiak aparte, Moskuren jokabide honek ba du zentzu politiko sakonik.

Politik aldetik, zer adierazten du Moskuren jokoak? Gai hauetan adituak ez datoz bat puntu hontan.

Frantziako Alderdi Komunistaren azpi jokoren bat ote dago hor? Batzuk hala uste dute. Chirac Frantziako lehen ministrua egon berria da Moskun. Eta han Frantziako Alderdi Komunistaren kontra mintzatu zen. Bidaia berean, Breznev biziki mintzatu zen Giscard Frantziako lehendakariaren alde. Bi arrazoin hauengatik, ba dakigu, Marchais jaunak, bere haserrea agerturik, gutun* bat egin diola Breznev burkideari.* Mitterranden hauzia ere aipatu izan balio, zer? Kasu hortan, egiazko komedia egiten ariko litzateke Alderdi Komunita, zeren* eta, Moskuren erabakia jakin duenean, bera ez dela akort jakin erazi baitu, Mitterranden alde aterarik.*


Beste batzuk, Mitterranden pertsona bera ezin duela begi onez Moskuk ikusi esango dute. Izan ere, Mitterrandek Moskuren aginte moduari kritikak maiz* egin dizkio. Moskuren barneko eta kanpoko politika salatu du behin baino gehiagotan Mitterrandek. Ezagunak dira, oraindik berrikitan,* Internazional Sozialistaren Bilkuran* (otsailaren* 22an), Frantziako AS-ren sekretari* nagusiak egin zuen sobietarren kanpoko politikaren kritika gogorra.

Baina, dirudienez, Moskuk hori egiteko izan dituen arrazoinak askoz ere sakonagoak izan dira. Moskuk ez du sekula, Europan ezkerak agintea har dezan gogo handiegirik izan. Mitterrandek berak, Internazional Sozialistaren Bilkuran esan zuenez, «Estatu Batuak bezala, Sobietar Batasuna ere Europan **statu quo** politikoaren aldekoa da. Gobernu kontserbakorrak sozialistak baino nahiago ditu beti». Frantziako kasuan, aginte gaullistarekin eta honen jarraitzailearekin ikaragarri ongi konpondu da

beti. Horrela, bada, Mitterrand baliogabeztatu,* ez ote du Moskuk Giscarden alde borondate oneko jestu bat egin nahi izan? Ez dezagun ahantz, «hauteskundeen* bezperan, Pariseko sobietar enbasadoreak Giscardi egin ziola ikustaldia eta ez Mitterrandi, horrekin lehena bigarrena baino maiteago zuela adieraziz.

Moskuk ez du oraingoz nahi, inork nazioarteko ekilibrioa hauzitan edo kilikolo jar dezan. Bestalde, europar segurtasunaren konferentzia sonatu hura* lortu arte, ez dago trankil Moskuk. Eta hori erdiesteko,* gobernu burgesekin harremanak hersten* hersten ari dira sobietarrak.

Ba da beste arrazoin bat ere. Niretzat esannahitsue-
na. Moskuk ez du gura sozialismoaren esperientzia berri-
rik Europan. Pragako udaberria datorkio gogora. Europan sozialismoak eta komunismoak, bat eginik, bide berri bat irekiko balute, horrek agian* udaberri bat eka-
rriko luke Pragan eta Budapesten eta Pankowen... Eza-
guna da, Italiako «Hautsi-mautsi* Historikoak», Frantzia-



François Mitterrand

ko «Programa Bateratuak», Espainiako «Aliantza eta Hitzarmenak*» ez diotela Moskuri inongo graziaz egiten. Bide berri bat litzateke hori, dudarik gabe, Europan Sozialismo izenaz bataiatua izango eta beraz Moskutik distantziaturik biziko litzatekeena.

Giscarden Frantzia nahiago du Moskuk Mitterrandena baino, Europa burgesa maiteago Europa ezkertiarra baino. (Joan Mari Torrealday)

HOR, HAN, HEMEN

Berri laburrak

- Frantziako alderdi sozialista irrati emangailu* bat beretzat prestatzen ari da, frantses Estatuaren barrutik irratsaioak eman ahal izateko. Gobernuaren arauerako* irrati eta telebistaren monopolioak hedatzen* dituen berriei aurpegi ematea du helburu. Haseran, Paris eremuari* lotuko omen zaio.

- Russel Tribunalak bere bigarren epaia eman du argitara. Lelio Basso buru duela, eta García Márquez, Bosch, Cortázar, Girardi, Rigaux, Kastler eta hauen gisako* beste zenbait gizon nabari* hauzimahaiko direla, Latin Amerikari buruzko ageri bat sinatu* dute Bruselan. Brasil, Txile, Uruguay, Bolivia, Guatemala, Haiti, Dominikar Errepublika eta Argentinan agintariak buruturiko giza eskubideen zapalketak eta indarkeriak salatzen dituzte, bai eta, Estatu Batuak ere egeora horien suemale direlako, Nixon, Ford eta Kissingeri erruak bereziki leporatuz.